



ARANGUREN IBARREKO UDALAREN INFORMAZIO BULETINA

KULTURA ZERBITZUA

www.aranguren.es



JARDUERA KULTURALEN AGENDA



ANTOLATZAILEA

Casa de Cultura
del Valle de Aranguren



Kultur Etxea
Aranguren Ibarra

LAGUNTZAILEAK

Gobierno
de Navarra



Nafarroako
Gobernua



ADI TXARTEL SALMENTEN ALDAKETEKIN!

AURRETIKO SALMENTAREN HASIERA ARANGUREN IBARREAN ERROLDATUTAKO ETA SALMENTA SISTEMAN EMANDAKOENTZAT OTSAILAREN 10EAN 10:00ETAN OTSAILAREN 10, 11 ETA 12AN ERROLDATUTAKO PERTSONENTZAKO SALMENTA ESKLUSIBOA. SALMENTA OROKORRAREN IREKIERA, OTSAILAREN 13AN, OSTEGUNA, 10:00ETAN

¡ADI!

EUSKARAREN ASTEKO SALMENTA (PORROTX ETA MARIMOTOTS ETA GOAZEN) APIRILAREN 28, 29 ETA 30AN ERROLDATUTAKO PERTSONENTZAKO SALMENTA ESKLUSIBOA MAIATZAREN 1ETIK AURRERA PUBLIKO OROKORRA
Leihatila: Leihatila: Astelehenetik ostiralera 10etatik 13etara eta 17etatik a 21etara
Ekitaldiaren egunean: 30 min hasiera baino lehen
Internet: www.aranguren.es/cultura

FAMILIARTEAN

OTSAILAK 23 12:00 (EUSK) 18:00 (CAST)
ANTZERKIA "ALTXOR KUTXAREN BILA"

MARTXOAK 9 18:00
TXONTXONGILOAK "PANGEA CIRCUS"

MARTXOAK 12 17:00 (EUSK) 18:00 CAST
IPUIN KONTALARIA BERDINTASUN

MARTXOAK 23 18:00
TXONTXONGILOAK "EL PRINCI-PATO"

APIRILAK 5 18:00
ITZAL ANTZERKIA "EL CARNAVAL ANINAL

APIRILAK 26 18:00
ANTZERKIA "BURBUJA DOBLE"

EUSKARAREN ASTEA
MAIATZAK 6 18:00 (EUSK)
PAILAZOAK "OSTIRALA IRITSI DA"

MAIATZAK 8 18:00 (EUSK)
"GOAZEN 11.0"

GAZTE ETA HELDUAK

OTSAILAK 14 19:30
LITERARTE ANTZERKIA "VIAJE A LA NADA"

OTSAILAK 16 19:00
ANTZERKIA "MUCHOS AMIGOS NEGROS"

MARTXOAK 2 19:00
ANTZERKIA "MACHO GRITA"

MARTXOAK 7 19:00
ANTZERKIA "AHORA SÍ QUE SÍ"

MARTXOAK 15 19:00
ANTZERKIA "ARIZONA"

MARTXOAREN 28TIK 30RA 19:00
ANTZERKI TAILERRA

APIRILAK 6 18:00 Y 20:15
ANTZERKIA "WAR BABY"

APIRILAREN 11TIK 13RA 19:00
ANTZERKI TAILERRA

MAIATZAK 4 19:00
ANTZERKIA "INMATRICULACIONES, OH MY GOD!"

EXPOSICIONES

OTSAILAREN 22TIK 28RA
"EL JUEGO EN EL MUNDO"

OTSAILAK 22
LUDIGO! HAURRENTZAKO JOKU TAILERRA OTSAILAK

MARTXOAREN 4TIK 23RA
"LA MAGIA DEL TÍTERE"

MARTXOAK 4 BISITA GIDATUA,
MARTXOAK 6 TXONTXONGILO TAILERRA

MARTXOAREN 26TIK APIRILAREN 16RA ARGAZKI
ERAKUSKETA "Y OS LO CUENTO"

APIRILAREN 22TIK MAIATZAREN 4RA
"INMATRICULACIONES. ESCÁNDALO MONUMENTAL"

MAIATZAREN 19TIK 31RA
ARANGUREN IBARREKO ZAHARBERRITZE ETA PINTURA
ERAKUSKETA

→ ANTZERKIA

"VIAJE A LA NADA" LITERARTE FESTIBALA

Formatu txikiko 4 pieza, elkarrekin obra berri bat osatzen dutenak

📅 Otsailak 14
Ostirala

🕒 19:30

👥 GAZTE ETA
HELDUENTZAKO
JARDUERA
DOAKO
SARRERA AURRETIK
GONBIDAPENA
ERRETIRATUTA
LEKU MUGATUAK



Liburutegi publikoetako irakurketa klubetan irakurritako lau liburutan inspiratuta, lau antzerkigilek lau antzerki pieza labur berri sortu dituzte. **Nada**, Carmen Laforet. Antzerkigilea Ventura Ruiz. **Lejos**, Rosa Ribas. Antzerkigilea Ana Maestrojuán. **La dama blanca de Champaña**, Begoña Pro Uriarte. Antzerkigilea Asier Andueza. **La joven y el mar**, Catherine Meurisse. Antzerkigilea Patxi Larrea.

→ ANTZERKIA

"MUCHOS AMIGOS NEGROS" ADOS TEATROA

Dramaturgia zirikatzailea, elkarrizketa txinpartatsukoa, etenik gabe barretik dramara pasatzen dena

📅 Otsailak 16
Igandea

🕒 19:00

👥 GAZTE ETA
HELDUENTZAKO
JARDUERA

🎫 7 €

🕒 75 min



Errealitateari itsatsitako istorioa da, gaurkotasan handiko gai bati garrantzia ematen diona: ezezaguna den pertsonarekiko beldur edo arbuioa, emigrantearekiko, beste erlijio batekiko, klase sozial behartsu batekoa dena edo bestelako joera sexuala duena. Zuzentasun politikoaren geruza askoren azpian ezkutuan daramagun sentimendua. Azken finean, ezberdina denaren beldur bat, aniztasunarena, denok ukatzen duguna "lagun beltz asko ditugulako".


→ ANTZERKIA FAMILIARTEAN

“ALTXOR KUTXAREN BILA” TDIFERENCIA

Kultura-aniztasunaren, berdintasunaren eta tolerantziaren aldeko bidai bat

 Otsailak 23
igandea

 12:00 Euskara
18:00 Gaztelera

 **PUBLIKO
GUZTIENTZAKO
JARDUERA
(GOMENDATU-
TAKO ADINA:
4 URTETIK
AURRERA)**

 4 €

 55 min



Bi pirata ausartek gidatuko zaituzte inoiz kontatu, abestu eta dantzatu dizuten altxorraren bilaketa zoro eta dibertigarriena. Bi pirata dibertigarrik Patatapocha pirataren altxorra aurkitu arte mundu osoan zehar izandako abentura eta zoritxarrak kontatuko dizkigute. Kontinenteetako kultura-aniztasuna, ohiturak, hizkuntzak eta istorio asko ezagutuko ditugu. Eta barruan zer egongo da? Urrezko txanponak? Bitxiak eta erlikiak? Ez. Altxor hori askoz aberasgarriagoa eta dibertigarriagoa da, eta guztiok gozatuko dugu.

→ ANTZERKIA

“MACHO GRITA” ALBERTO SAN JUAN

Koprodukzioa Antzerki Klasikoko Konpainia Nazionalarekin

 Martxoak 2
igandea

 19:00

 **GAZTE ETA
HELDUENTZAKO
JARDUERA**

 9 €

 70 min



“Macho grita” gure orainaren eta 1492an hasten den zikloaren arteko lotura aztertzen du. Errekonkista, Amerikaren aurkikuntza edo judu eta moriskoen kanporaketarako hurbilketa pertsonala, lurralde honetan “arra” nola eraikitzen den umorez pentsatzeko. Alberto San Juanen hitzetan, proposamen hau «Espainiako historia ikusezinerara (edo ikusezin bihurtutakora) hurbiltzeko nahitik sortzen da, gaur egun bizitzarako baliagarriak diren gauzak ulertzeko itxaropen txikiarekin.

→ ANTZERKIA EMAKUMEAREN EGUNAREN OSPAKIZUNA

“AHORA SÍ QUE SÍ” ADRIANA OLMEDO

Zatoz gurekin emakumearen eguna ospatzera komedia dibertigarri honen eskutik

 Martxoak 7
ostirala

 19:00

 **GAZTE ETA
HELDUENTZAKO
JARDUERA**

 4 €

Berdintasun alorrak
antolatuta



Paqui eta Lola. Bi auzokide. Bi emakume. Bi lagun. Bi adiskide. Beren buruari aukera bat emateko garaia dela erabaki dute. Agur esateko possit bat. Hozkailua taperrez beteta. Bizirauteko eta etxea zaintzeko instrukzio zerrenda luzea eta soineko, ileorde, kapela, lepoko, fular... kanta, dantza... eta batez ere bizitzeko gogoz betetako maleta. Has dadila show-a...

Finantzatzen du:




→ IPUIN KONTALARIA

EMAKUMEAREN EGUNAREN OSPAKIZUNA

Genero ikuspegia duen ipuin kontaketa

 Martxoak 12
asteazkena

 17:00 h. Euskara
18:00 h. Gaztelera

 **PUBLIKO
GUZTIENTZAKO
JARDUERA
(GOMENDATU-
TAKO ADINA:
4 URTETIK
AURRERA)**

 **Doako
sarrera, lekuak
bete arte**



Zatoz familiarekin Emakumeen Nazioarteko Eguna ospatzera Ventura Ruizen eskutik genero ikuspegia duten ipuinak kontatuz.

Organiza Área de Igualdad



→ ERAKUSKETA

“LA MAGIA DEL TÍTERE”



**Martxoaren
4tik 23ra**



**ASTELEHENETIK
OSTIRALERA
10:00ETATIK
13:00ETARA ETA
17:00ETATIK
21:00ETARA**



**DOAKO
SARRERA**



BISITA GIDATUA
ASTEARTEAN,
MARTXOAK 4,
11:00ETAN



Paperezko antzerkitxoaren tailerra 7 eta 12 urte bitarteko haurrentzat martxoak 6 osteguna 11etan. (90 min).
Izen-ematea apirilaren 28tik maiatzaren 4ra 948 29 14 89an (leku mugatuak)

“La magia del títere”, Colectivo Humoren mundu berezia erakusten du, artisaun-eran ekoiztutako hainbat pertsonaia, instalazio eta mini-antzerkiaren bidez. Irudimenez beteriko hainbat istorio erakutsiko dizkigu, estetika sotil, erabat eder eta ironiaz beteriko zertzeladtxoekin. Tonu poetikoarekin, bere lanek, beti ludikoak, balio positiboak transmititzen dituzte, bai haurrei bai helduei ondo pasatzeko helburu nagusiarekin.

→ TXONTXONGILOAK FAMILIARTEAN

“PANGEA CIRCUS: LA MAGIA DE LA TIERRA”

COLECTIVO HUMO

Pangea (ama natura) berraurkitzeko modu dibertigarria, txontxongiloekin eta clown nahiko trakets batekin kontatua



**Martxoak 9
igandea**



18:00



**PUBLIKO
GUZTIENTZAKO
JARDUERA
(GOMENDATU-
TAKO ADINA:
4 URTETIK
AURRERA)**



4 €



50 min

*Pangea Circus: La magia
de la Tierra*



Naturaren eguneroko fenomenoak zirkuko antzezpene gisa eszenifikatzen dira, “la madre tierra” pertsonaia “Tragasables” izango da (Sableak jaten ez dituen, agian), “Aureliano, el agricultor” ezerezetik lore batzuk sorraraziko ditu, “Oruga Saltimbanqui”-ak alanbrean duen trebezia eta eraldatzeko duen ahalmena erakutsiko ditu, “Pulgoni familia”-k bere bizortasuna probatuko du.

→ ANTZERKIA

“ARIZONA” TXALO PRODUCCIONES

Aitziber Garmendia eta Jon Plazaolarekin



**Martxoak 15
larunbata**



19:00



**GAZTE ETA
HELDUENTZAKO
JARDUERA**



7 €



75 min



Georgek eta Margaretek beren mugak defendatu behar dituzte. Auzokoak hortxe daude zelatan, deskuidorik txikienarekin gurutzatzeko zain. Baina, Margaret galdera gehiegi egiten hasi denean, bere bizitza zen komedia musikala tragedia basati bihurtu da. Arizona ez dago hain urrun. Arizona hemen dago, Ceutan, Melillan, gure hirietako bakoitzean, gizaki batek bizitza hobeia izan ez dezan eraikitzen den harresi bakoitzean.

→ TXONTXONGILOAK FAMILIARTEAN

“EL PRINCI-PATO” PANDURO Y MARMORE PRODUCCIONES

Adiskidetasuna bezalako gauza handiez hitz egiten digun istorio txiki bat



**Martxoak 23
igandea**



18:00



**PUBLIKO
GUZTIENTZAKO
JARDUERA
(GOMENDATU-
TAKO ADINA:
3 URTETIK
AURRERA)**



4 €



70 min



Printze baten istorioa kontatzen du El Princi-Patok, bost urteko mutil batena, esku gogorregiz hezi dutena. Gaztelu txiki bat gobernatzeko ordua iristen zaionean, berehala despotiko eta anker agertzen da bere menpekoen aurrean, hauen artean Candela dago, bere adin bereko neskatua. Candelak aurre egiten dio printzeari, eta lortzen du ulertaraztea zorientasuna bere arau zorrotzetatik kanpo dagoela, hezia izan den korazatik harago, eta ausarta izaten laguntzen dio.

→ ARANGUREN IBARREKO ANTZERKI TAILERRA

¡BIENVENIDO DON QUIJOTE!

Zuzendaria Ion Barbarin

Antzezlarik: Carmen Almunia, Nicolás Betancur, Fidel Del Río, Rafael Estrada, Marta Luque, Marian Oria, Iñaki Pérez, Susana Pérez, Conchi Tiraplegui, Javier Zalba y Marina Zapata

 **Martxoak 28, 29 eta 30**

 **19:00**

 **GAZTE ETA HELDUENTZAKO JARDUERA**

 **4 €**

 **70 min**



Zoro talde bat, moja maitekor baten zaintzapean. Horietako bat "On Kixote Mantxakoa" bera dela uste du. Irudi Tristearen Zaldunak, Rocinanten muntatua eta Antso Panza espontaneoaren ondoan, bizitzera eramango duen bidaiari ekingo dio. Zalduneriaren eleberrietan ilustratzen diren abenturak. Eromenaren eta arrazoimenaren arteko marra mehea desagertu egiten da komedia honetan, non ez dakigun non hasten den bata eta non amaitzen bestea. Anguel Saguesen testu honek Miguel de Cervantesen eleberrien begirada garaikide berri batean murgiltzen gaitu.


→ ITZAL TAILERRA FAMILIARTEAN

"EL CARNAVAL ANIMAL" LUZ, MICRO Y PUNTO

Hitzik erabili gabe bere protagonistekin batera adiskidetasuna eta elkartasuna zer diren ospatzea eta ikastea lortzen du

 **Apirilak 5 larunbata**

 **18:00**

 **PUBLIKO GUZTIENTZAKO JARDUERA (GOMENDATUTAKO ADINA: 4 URTEK AURRERA)**

 **4 €**

 **45 min**



Eguna argitzen ari du basoan. Oso egun berezia da animalientzat. Inauteri eguna da. Kukua armiarmaz mozarrotzen da, zisnea untxi oso dotorez, dortokari oskoletik hegoak ateratzen zaizkio, astoa adarbakar bihurtzen da, eta dinosauroa tukanez janzen da, zer moko handia! Ospatzeko eta dantzatzeko elkartu dira, Lehoia festan sartu arte. Denak beldur dira, baina ez dakite Lehoiaren desiorik handiena lagunekin jolastea dela. Ikusiko dugunez, orro ikaragarri horiek egin arren, Lehoiak bihotz handia du bularrean.

→ ANTZERKIA

"WAR BAY" YLLANA

Gag-ez eta erokeriaz betetako komedia dibertigarria, gerraren zentzugabeke-riaren aurrean jaurtitzeko arma dena

 **Apirilak 6 igandea**

 **18:00
20:15**

 **GAZTE ETA HELDUENTZAKO JARDUERA**

 **9 €**

 **80 min**



Yllanaren estilo bikainenean, WAR BABYk erreklutamendu militarreko zentro batera eramango gaitu. Honetan errekruta despistatu batzuk entrenatu egiten dituzte herrialdeko lider berriak, baimendutako umetxo gerrazale bat, sortu duen gerra zentzugabera joateko. Pertsonai dibertigarri kolekzioa bat eta egoera erabat zentzugabeak Yllanaren gerraren eta boterearen inguruko satira antibelzista honen oinarriak izango dira.

→ ARANGUREN IBARREKO ANTZERKI TAILERRA

"SUEÑOS DE VERANO"

Leire Ruiz eta Iratxe Úriz

Antzezleak: Begoña Agúndez, Rosa Arnedillo, Silvia Beroiz, Iñigo Berroca, Tere Garatea, Fernando García, Koldobike Iribarren, Carlota Legaz, Marta Muñoz, Marisa Serrano, Marivi Vera, Cesar Viedma y Maribel Zamora

 **Apirilak 11, 12 eta 13**

 **19:00**

 **GAZTE ETA HELDUENTZAKO JARDUERA**

 **4 €**

 **70 min**




Badira udako ametsak, bizitza oso bat irauten dutenak. Badira ilargi betearen azpian, herri bateko jaietan, zatitzen diren amodioak. Udako gau bateko ametsak daude ilargipean, antzoki bete bezalakoak. Antzokiek ametsak kontatzen dituztelako eta ilargiak udako gauetan izandako egiak ezkututzen dituelako. Eta ametsak, ametsak dira

→ ANTZERKIA FAMILIARTEAN

“BURBUJA DOBLE” 7 BUBBLES

Burbujaren arrakasta agorrezinaren ondoren, xaboi-burbuilen komedia zoro honen bigarren zatia iritsi da

-  **Apirilak 26**
larunbata
-  **18:00**
-  **GAZTE ETA HELDUENTZAKO JARDUERA**
-  **4 €**
-  **60 min**




Bizitzaren alaitasuna irudi eta ehundura berriak sorreran bilatzen dituen joku dramatiko honetan publikoa protagonista gakoa izango da. Burbuila batek mila hitz baino gehiago balio baitu, eta desagertu arren, bere edertasun eta magia gure oroimenean betirako gorde dezakegulako. Ahazteko zaila. Galdu ezin duzun ikuskizuna.

→ SENDABERRI ZIKLOKO ANTZERKIA

“INMATICULACIONES. Oh my God!”

AMICO TEATRO/ NAFARROAKO ONDAREAREN DEFENTZARAKO PLATAFORMA

-  **Maiatzak 4,**
igandea
-  **19:00**
-  **GAZTE ETA HELDUENTZAKO JARDUERA**
AMAITZERAKOAN
TOPAKETA
PUBLIKOAREKIN
-  **7 €**
-  **80 min**



Eliza katolikoak bere izenean erregistratu zituen ondasunak umorez, eta sinesmen erlijiosoarekiko errespetuz, salatzen dituen antzezlan. Bi aingeru inuzente eszena desberdinak aurkezten dituzten zeremonia-maisua dira. Eliz mutilak, apezpikuak, apaizgaiak eta jabetza-erregistroko funtzionarioak. Loteria berezi honetan, zortea elizbarruti bihurtzen da, eta sari nagusia Kordobako mesquita da.


Sendaberri
Nuevos paisajes escénicos
Paisata eszentiko berriak

→ EUSKARAREN ASTEA

“OSTIRALA IRITSI DA!” PORROTX ETA MARIMOTOTS

jantzi sudur gorria eta zatoz gurekin Txapasen kaxa magikoek gordetzen dituzten sekretuak ezagutzera!

-  **Maiatzak 6**
asteartea
-  **18:00**
-  **ADI! ARANGUREN IBARREKO POLIKIROLDEGI PABILOIAN**
-  **6 €**
-  **70 min**








Gaur egun berezia da eskolan. Porrotx, Marimotots, Pupu, Lore eta bertaratutako lagunek Txapas irakaslearekin batera, bere azken laneguna igaroko dute, elkarrekin ikasitako ospatuz. Basoa, jolasak, eskulanak, kantuak, irriak eta bihurrikeriak ez dira faltako. Txapasekin beti da ostirala!

→ EUSKARAREN ASTEA

“GOAZEN 11.0” GLU GLU & PAUSOKA

Maitasun, gorroto eta festa abestiak entzungo ditugu aurten ere Go!azen 11 ospatzeko.

Antzezleak: Nerea Elizalde, Mikele Arizkorreta, Xabier Elizalde, Kimetz Etxabe, Ander Ayerza, Garazi Urkola, Irati Marin, Adriana Sanchez, Julen Taboada

-  **Maiatzak 8**
osteguna
-  **18:00**
-  **PUBLIKO GUZTIENTZAKO JARDUERA (GOMENDATUTAKO ADINA: 7 URTEK AURRERA)**
-  **6 €**
-  **70 min**



Aldaketak Basakabin! Maitane udalekuko zuzendari berria izendatu dute, eta aurten gainera, omenaldi berezi bat ospatuko da Basakabin. Hori antolatuzeko, Leire izendatu dute arduradun, eta honek argi dauka bere alaba Izarrek abestu behar duela galan... Baina Maitane ez dago erabat ados erabakiarekin, eta ikasle denek aukera eduki beharko luketela uste du. Nork abestuko du azkenean?

ERAKUSKETAK

JOLASA MUNDUAN

- Otsailaren 22tik 28ra
- Astelehenetik ostiralera 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 21:00etara
- DOAKO SARRERA



Erakusketak herritartasunari jokurako eskubidea eta Hegoalde Globaleko herrialdeetan jasaten duen urraketa, batez ere garapen gutxiko herrialdeetan, ezagutaraztea bilatzen du, kausa eta ondorioak azpimarratuz.

Erakusketarekin batera “LudiGo!” jarduera egingo da. Bertan, **jolas kooperatibo erraldoi bat eta birziklatutako materialekin jostailuak sortzeko tailer** batez gozatuko dugu, sormena eta ingurumenarekiko kontzientzia elkartuz.

Gainera, Gizaki Herritar Fundazioari (Paris 365) egoera onean dauden **jostailuak emanez** ekarpen txiki bat egiteko aukera aprobetxatuko dugu. Egoera ahulean dauden haurrei sentiaraz diezaiegun jostailu berri bat jasotzearen zirrara!

Dohaintza tailerren egun eta ordutegi berean egingo da.

7 eta 12 urte bitarteko haurrentzako tailerren izena emateko epea otsailaren 13tik 20ra 948 29 14 89 telefonoan.

ARGAZKI ERAKUSKETA GKE

“Y OS LO CUENTO”

- Martxoaren 26tik apirilaren 16ra
- Astelehenetik ostiralera 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 21:00etara
- DOAKO SARRERA

Y os lo cuento Nafarroako GKE bat da, osasun, hezkuntza eta oinarriko zerbitzuak emateko hainbat proiektu egiten dituena. Ahaztutako errealitateak ezagutaraztea da bere helburuetako bat.

Argazki-erakusketa honen bidez, Haitin, Kenyan, Guatemalan, Ekuadorren, Sierra Leonan eta beste leku askotan dituen proiektuetara hurbilduko gar.



ERAKUSKETAK

“INMATICULACIONES. ESCÁNDALO MONUMENTAL”

- Apirilaren 22tik maiatzaren 4ra
- Astelehenetik ostiralera 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 21:00etara
- DOAKO SARRERA



“Inmatriculaciones, Oh my God!” funtzioarekin batera, Javier Etayo Larrainzar (TASIO) marrazkilaria eta umorista grafiko ezagunak ilustratutako umorean nabigatzen duen erakusketa didaktikoaz gozatu ahal izango dugu. Bertan, Inmatrikulazioen fenomenoaren mugari nagusiak jasotzen dira (perspektiba historikoa, marko legala, lan patrimonialista...).

Nafarroako Ondarearen Defentsarako Plataformarekin hitzaldia apirilak 24ean, osteguna, 19:00etan. Doako sarrera.



ARANGUREN IBARREKO ZAHARBERRITZE ETA PINTURA ERAKUSKETA

- Maiatzaren 19tik 31ra
- Astelehenetik ostiralera 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 21:00etara



Urtero bezala Aranguren ibarreko pintura eta zaharberritze tailerretako ikasleek gure hall-a eta erakusketa aretoa betetzen dute. Hainbat teknika eta estilotako koadroak ikusi ahal izango ditugu, eta altzariak eta antzinako tresnak nola berreskuratzen diren edo transformatuz bitzita berri bat nola ematen zaien ikusiko dugu.

EKITALDIETARA JOATEKO OHARRAK



→ **PUNTUALTASUNA.** Iritsi saioa hasi baino lehen, ikuskizuna bere orduan hasi ahal izateko, eta artistei eta gainerako ikusleei zor zaien errespetua erakusteko. Behin emanaldia hasita, ez da aretorea sartzen utziko, publikoa eta artistak kontuan hartuta.



→ **UMETXOAK.** Umetxo batekin joaten bazara, haren adina edozein delarik ere, edukiera kontuengatik bere sarrera izan beharko du auditorioan sartzeko, legeak halaxe aginduta. Gainera, segurtasun arloko arrazioak direla medio, haur aulkitxoa edo gurditxoa ekartzen baduzu, eraikineko atondoan utzi beharko duzu.



→ **HOTS ETA ARGI SEINALEAK.** Itzali zure sakelako telefonoa aretoan sartzean. Gozatu unea, merezi baitu.



→ **DIRUA ITZULTZEA.** Kultur Etxeak ez du sarreren dirua itzuliko, salbu ekitaldia bertan behera uzten bada edo programazioan aldaketak izan badira. Inguruabarrek beharurik, iragarritako data, ordutegi, programa eta interpreteak aldatzen ahalko dira. Halaxe gertatzen bada, aurrez zuregana joko dugu edozein aldaketaren berri emateko.



→ **JAN-EDANAK.** Ez da zilegi auditorioan elikagaiak eta edariak kontsumitzea.



→ **ADIN GOMENDATUAK.** Kultur Etxera haurrekin etortzen bazara, izan beti kontuan zer adin dauden gomendatuak ikuskizunerako. Horrela, jende guztiak gehiago eta hobeki gozatuko du.



→ **HOBETO ENTZUTEKO.** Aretoa entzungailu-sistema bat du, soinuaren seinale anplifikatua jasotzeko.



LEIHATILA:

- > **Astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 21:00etara.**
- > **Ekitaldiaren egunean: saioa hasi baino 30 minutu lehenago.**
- > Gehienez, 6 sarrera buruko familiendako ikuskizunetan
- > Gehienez, 4 sarrera buruko gazte eta helduendako ikuskizunetan

*Familia ugariak, familia-unitateko pertsona-kopurua gehienez, eta euro bateko deskontua urtarrilaren 1etik aurrera familia-ikuskizunen sarreretan.



+INFO: 948 29 14 89
www.aranguren.es/eu/kultura/